

107. ALDIZKARIA - 2002ko irailaren 4a

• III. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

○ E T X A U R I

Behin betiko onespena

Udal honek, 2002ko maiatzaren 2an egin bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Etxauriko auto-taxien zerbitzu publikoaren erregelamendua hasiera batean onesteko erabakia 2002ko 30. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, martxoaren 8an, eta jendaurrean egoteko aldia iragan da, haren kontra inork alegaziorik aurkeztu gabe. Hortaz, Udal honek, boz batez eta legeak eskatzen duen gehiengo duela, erabaki du:

1. Etxauriko auto-taxien zerbitzu publikoaren erregelamendua behin betikoz onestea.
2. Erregelamendu honen testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Etxaurin, bi mila eta biko uztailaren bederatzian. Alkatea, Alexander Irujo Labiano.

ETXAURIKO AUTO-TAXIEN ZERBITZU PUBLIKOAREN ERREGELAMENDUA

Atariko xedapena

1. artikulua. Indarra duten xedapenek ematen dizkioten eskurantzak erabiliz, Etxauriko Udalak taximetroa duten alokatzeko ibilgailu arinetan bidaiariak garraiatzeko zerbitzua antolatu du, erregelamendu honetako eta indarra duen legediko aginduei jarraituz.

I. KAPITULUA

Erregelamenduaren xedea

2. art. Erregelamendu honen xedea da Etxauriko udal mugapean gidaria eta taximetroa dituzten alokatzeko ibilgailu arinetan bidaiariak garraiatzeko zerbitzua orokorrean arautzea.

3. art. Taximetroa izeneko kontagailua duen ibilgailuari erraten zaio auto-taxia. Taximetroa delako kontagailuak eginiko bidearen luze-laburraren eta geldirik eginiko denboraren balioaren berri emanen du, automatikoki eta bidaiariak ikusteko moduan, indarra duten unean uneko tarifei jarraikiz.

II. KAPITULUA

Ibilgailuak, haien jabetza eta zerbitzu egiteko baldintzak

4. art. Turismo guztiek balio izanen dute gidariaz eta taximetroa delako kontagailuaz hornitutako ibilgailuak alokatzeko zerbitzu publikorako, baldin eta arauz ezarritako baldintzak betetzen badituzte (Udalaren baimena, segurtasuna, 9 Hp baino potentzia handiagoa, itxura egokia eta gutxienez lau lagunendako gaitua badago).

Aipatu ibilgailuek karrozeria itxia izan beharko dute, baita sarrera erraza ere. Ateek segurtasun sistemaz gain argitasun eta aireztapenerako lehiatilak izanen dituzte.

5. art. Autoek honako agiri hauetaz horniturik egon beharko dute:

1.-Ibilgailuaren agiriak, plazaren titularraren eta gidariaren izenean.

2.-Erregelamendu honen ale bat.

3.-Indarra duten tarifak.

4.-Aseguruaren poliza (ibilgailuak eta bidaiariak).

5.-Ordainagirien taloitegia.

6.-Indarra duen legediak eskatu adina agiri.

6. art. Urtero, auto-taxi ibilgailuen azterketa bat egingen da nahitaez, bai eta Udalak eskatu edo Alkatetzak xedatzen dituen guztiak ere.

Karrozeriaren aitzinaldean nahiz gibelaldean, plaka bat eramanen dute, "S.P." letrak agerian dituena.

Ibilgailuak desinfektatu eta desintsektatu egin beharko dira, gutienez, urtean behin eta Alkatetzak hala agintzen duenean.

Lizentziak

7. art. Auto-taxien lizentziak Udalaren eskumenekoak dira. Lizentziak lehiaketa publikoaren bitartez emanen dira, Udalak hartarako prestatuko duen baremoari jarraituz.

8. art. Eskabideak Alkatetzari zuzenduko zaizkio idatziz. Haietan eskatzaileak adieraziko du Erregelamendu honen xedapen guztien berri duela eta onartzen dituela. Horrekin batera agiri hauek aurkeztuko ditu:

1.-Udal Erroldako ziurtagiria.

2.-NANaren fotokopia.

3.-Zinpeko aitortpena, prozedura penal edo administratiboaren bitartez gidabaimena kendu dion zehapenik jaso ez duela adierazten duena.

4.-Portaera oneko ziurtagiria, Alkatetzak luzatua.

5.-Indarra duen legeriak eskatzen duen bertze edozein agiri.

Lizentziaren onespina lortuz gero, onuradunak zerbitzua egingen duen ibilgailua eta hari buruzko agiriak aurkeztuko ditu, gehienez ere hilabeteko epean. Ibilgailua ez daiteke izan urtebete baino zaharragoa. Horretaz gain, hirugarrenei eta garraiatutako pertsoneri egindako kalteengatik mugarik gabeko erantzukizunaren aseguru poliza ere aurkeztu beharko du.

Aipatu epean agiri horiek eta ibilgailua auzkeztu ezean, kontzesioaren gaineko eskubide guztiak galduko ditu, bertzerik gabe.

9. art. Auto-taxien plazak edo haien hutsuneak betetzeko, deia egingen da ediktua paratuz Udaleko iragarki oholean, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hemengo prentsan. Ediktu horretan bertan zehaztuko dira deialdiaren baldintzak.

10. art. Udalak honako hauei buruzko idatzizko azterketa egingen die lizentziaren izangaiei:

-Erregelamendu honen ezagutza.

-Hauei buruzko ezagutza: herria, baita inguruak ere; hurbileko toki edo herrietara joateko bideak; probintziako hiriburuko ospitaleetara, laguntza eta administrazio zentroetara eta intereseko bertze zerbitzu batzuetara joateko bideena.

Probak egin ondoan, herriko osasun zerbitzuek osasun azterketa egingen dute.

11. art. Ematen diren lizentziak pertsonalak eta besterenduezinak izanen dira eta debekatua dago lizentzia eskuz aldatzea, lagatzea edo saltzea. Gainera, lizentziaren titularrak behartuta daude pertsonalki eta bertze edozein lan ordainiduren gainetik dedikazio oso eta bakarraz ustiatzera.

Halaber, debeku da ibilgailua bertze bati gidatzera uztea, salbuespenak izan ezik eta non Udalak, alkatetzak berariaz xedatuta, ez duen baimentzen, betiere zerbitzua egin aurretik.

Noiznahi ordezkatzan ahal da auto bat berriagoarekin, baldin eta Udalaren baimena izan eta erregelamendu honetako baldintza guztiak betetzen baditu.

Ibilgailua, gehienez ere, zortzi urte zahar izan daiteke.

Tarifak eta taximetroa.

12. art. Udalak zehaztuko ditu tarifak eta nahitaez begiratu beharko dituzte bai taxi gidariek bai erabiltzaileek ere.

Hiru tarifa mota ezarriko dira; ohikoa, goizeko 7etatik gaueko 21etara aplikatuko dena; gauekoa, gaueko 21etatik goizeko 7etara; eta jaiegunetakoa, jaieguneko goizeko 1etik gaueko 24etara.

13. art. Taximetroa delako kontagailuak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Indarra duen tarifa baimendua ekartzea.

b) Ibilgailuaren karrozeriaren barneko aitzinaldean ezarrita egotea, agerian egonen den tokian.

c) Zerbitzuak irauten duen denbora guztian funtzionatuko du.

d) Taximetroa delako kontagailuak egoki prezintaturik egon beharko du eta unean-unean eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu.

III. KAPITULUA

Zerbitzu egitea

14. art. Herriko erabiltzaileek edo herrian daudenek lizentziaren titularrari horrela eskatzen diotenean hasiko da zerbitzua.

Zerbitzua iraunkorra izanen da egunaren hogeita lau orduetan, igandeak eta jaiegunak barne.

Titularrak, itxura fisikoari eta jantziei dagokienez, garbi, duin eta txukun egon beharko du.

Gidariak ez dio uko egiten ahalko zerbitzu bat egiteari, bidezko arrazoirik ez bada. Bidezko arrazoitzat joko dira:

-Ibilgailuak dituen plazak baino lagun gehiago egotea.

-Bidaiaria mozkorturik edo sorgorkarien eraginpean egotea, salbu eta bere bizirako arrisku larririk dagoenean.

-Bidaiarien arropak edo daramatzaten fardel, ekipaje edo animaliek ibilgailuaren barnealdea narriatu edo kaltetu badezakete.

-Zerbitzua ibilbide iraganezinetan barna egitea eskatzen zaionean, horiek erabiltzaile eta gidariaren nahiz ibilgailuaren beraren segurtasunerako arriskua badakarte.

IV. KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

15. art. Erregelamendu honetako aginduen aurkako arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak.

Hutsegite arinak dira:

-Zerbitzuan egonik, bidaiariak uzteko eskatuta ere, erretzea.

-Ibilgailua zikin egotea, bai barrutik bai kanpotik.

Hutsegite larriak dira:

-Urtebetean lau hutsegite arin egitea.

-Beharrik gabe ibilbide luzeagoak egitea.

-Zerbitzu egitea baldintza pertsonal txarretan.

-Zerbitzu egiteari uko egitea, frogatutako arrazoirik gabe.

Hutsegite oso larriak dira:

-Zerbitzu egitera mozkorturik agertzea, edo zerbitzua bera halako egoeran egitea.

-Erabiltzaileei sobera kobratzea.

-Urtebetean lau hutsegite larri egitea.

16. art. Hutsegite arin, larri eta oso larriak Alkatetzak zehatuko ditu. Hutsegite arinak 6,01etik 30,05 euro bitarte zehatuko dira; hutsegite larriak, 60,10etik 150,25 euro bitarte; hutsegite oso larriak, 300,51etik 601,01 euro bitarte.

Hutsegite oso larriak, gainera, lizentzia behin betikoz kenduz zehatzen ahalko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu hau egunen batean Nafarroako Foru Parlamentuak onetsiko dituen xedapenen menpe gelditzen da eta bertan berariaz arautua ez dagoen guztia martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuaren arabera arautuko da.

Etxaurin, bi mila eta bateko azaroaren hogeita zazpian. Sinadura ulertezina.